

HERRI ETA HERRITARREN IZENDEGIA

Hitzaurrea

Aspaldidanik senti izan du Euskaltzaindiak herri eta herritarren izenak zeharo aztertzeko eta finkatzeko premia. Zinez esan daiteke, batere gehiegikeriarik gabe, Euskaltzaindia haste-hastetik kezkatu zela egiteko honetaz. Horra hor, besteak beste, Orixeren lanak "EUSKERA"n bertan franko goiz (1) agertuak. Azken berrogei urteotan premia larriagozen ari zela, zerrenda batzuk egin dira, Euskal Herri guztirako nahiz haren zati batetarako: Arabako herriei buruz dokumentazio aberats aberatsa, osoa eta erabatekoa eman digu *Gerardo López de Guereña*-k: "Pueblos Alaveses", "Boletín de la Institución Sancho el Sabio" aldizkarian, XIII (1969), 19 s. s. Mugaz-handiko herri eta herritarren izendegia egin zuen L. Dassance euskaltzain oraintsu zenduak: *L. Dassance, "Herrien eta herritarren izenak eskuaraz"*, Editions "Gure Herria". Larresoro (2) eta Auñamendi (3) koen zerrendak ere aipa beharrezkoak dira.

Euskaltzainburua batzorde hau, Izendegi honena, alegia, jarri zenean pundu honetaz esaten zuena aipatzea merezi duela uste dugu: "Gai hontaz eginik dauden lanen bibliografia bat osatu beharko du batzordeak, hasteko. Izañ ere badira lan batzuk gure sail hontarako laguntasun ederra eman diezaiguketenak. Mitxelenak, Aramaioko txostenean, bi bereziki aipatzen ditu: *Raymond*, "Dictionnaire topographique du département des Basses-Pyrénées", eta *Corona Baratech*, "Toponimia Navarra en la Edad Media"... Aingeu Irigarai eta Etxaide jaunak ere lana franko egina dute sail honetan. Mitxelena jaunak ere bildurik ditu euskal testu zaharretan ageri diren herri izen zaharrak. Gure idazkari ordeak, Lizundiak, alegría, berebiziko zaletasuna eta gaitasuna agertu du euskal

(1) Ikus "EUSKERA" 1930, XI, 62-71 orr. Orixek beste zenbait aldizkaritan ere idatzi zuen toki-izenez. Ikus "GERNIKA" 1953, 24. alea.

(2) LARRESORO, "EUSKARA BATUA ZERTAN DEN", V. *Euskal Herriko leku-izenak*, 164 or. Jakin, Arantzazu, 1974. 1964ean "Euskal Elkargoak" berezirik argitara emana.

(3) *GEOGRAFIA HISTORICA DE LA LENGUA VASCA*, I "Indice alfabético de localidades de Euskalerri y sus referencias". Auñamendi 1960.

geografia eta kondaira gaiak aztertzen. San Martin gure idazkari jaunak ere, berdin, onomastika eta kondaira izenak arakatzen. Eta badakit kondaira nahiz herri ikertze lanetan gailurtu diren gure elkargoako anaietatik dexente uzten ditudala aipatu gabe”.

A. Villasanteren txosten berean (4) agertzen diren beste pasarte batzuk dakarzkigu, irakurlearentzat sarrera eta argibide izan nahi duen hitzaurrerako baliozko direla uste baitugu: “Denek aho batez aitortzen dute zer nolako nahaspila den gure artean. Euskal aldzkariak eskutan hartu besterik ez dago, hori ikusteko. Gure herrien izenak euskeraz nola diren askotan ez dakigu, zehatz behintzat. Batek esango dizu *Oñate*, basteak *Oñati*, besteak *Oinati*. Batak *Bilbo*, besteak *Bilbao*. Batak *Galdakano*, besteak *Galdakao*, besteak *Galdako*, ta abar. Herritarren izenaz (hots, gentilizioaz) berdin gertatzen zaigu. Nola esan behar da: *abadiñarra*, ala *abadiñotarra*; *durangotarra* ala *durangarra*? Xehetasun hauek herrian bertan edo herri hartatik gertu xamar bizi direnak jakiten dituzte, baina urrutikoek ez.—Nolanahi ere, “Nomenclátor ofizial” baten beharrean gara, eta hori, inork egitekotan, Euskaltzaindiak behar du egin... Eremua ere zabalegia izan ez dedin, mugatu beharko dugu. Oraingoz, behintzat, toponimia handia (hots, “toponimia mayor”) hartuko genuke bakarrik: herrien izenak, hauzo handitxoak ere bai (“entidad de población” kategoria ofizialki dutenak hartu ditugu kontutan)... Ez naiz ni hemen hasiko sail berezi honek dauzkan zaitasun, katramila eta problematika berezia azaltzen. Baino zerbait esan beharra dago, gaiak berak eskatzen duen bezalako batzordea jartzen asma dezagun. Konplejidade handiko saila bait da hau. Lehenik, gaiak biltzen izango ditugu lanak. Kontuan eduki beharko ditugu erderazko izen ofiziala, eta erderaz mintzatzean inguru hartakoek erabiltzen dutena (beti ez bait dira berdinak). Euskeraz mintzatzean gaur esaten dena eta behinola esaten zena (hau iskribu zaharretatik jakin behar da). Euskeria galdu den eskualdeetan franko aldiz toponimia xehean gorde da antzinako euskal izena. Gaiak biltzen bakarrak lan izugarri dago, bada, eta eskualde bakoitzean lankideak bilatu beharko dira”.

(4) Ikus “EUSKERA” 1972, 174 orr.

Lan prozedura eta adibideak

Azken lerroetan aipatu diren katramila, berezitasun eta abar aztertzeko lan prozedura bat onhartu zuen batzordeak, eta adibide orokor batzu jar. Gure artean, bakoitzak bere txokoko fenomenoa ezagutzen bait dugu, baina gutxik Euskal Herri osokoa, goiherritar batek badaki *Lazcano-k n* galtzen duela baina ez daki hori bera gertatzen dela *Galdacano* edo *Lemoniz-ekin* Bizkaian; *Miñano-rekin* Araban edo *Torrano-rekin* Nafarroan. Txokokerian erorita *Idiazal* onhartzea proposatuko luke *Idiazabal-en* ordez, baina orduan kontrazio guztiak bedeinka beharko genituzke amildegian gain—behera abiatzu gero, eta *Zeani* onhar, *Zeanuri-ren* lekuaren edo *Mos-trun, Monasterioguren-en* ordez.

Jakina da gure zenbait herrik bi izen dituztela, bata orain darabilena: *Billerle, Plentzia, Plaentxia* eta bestea *Jaunak* edo *Erregeak* hiri bezala izendatu zuenean izen berri horri ofizialtasuna eman arren “carta puebla”n agertzen den herri izen zaharragoa eta euskaldunagoa. Euskal Bizkundeak berragertu zituen honelako izan asko eta gaur egun hedadura bat hartu dute. Bide bat jarraitu dugu beti hauiek bezalakoeitan, toponimo zahar berbiztua onhar baina alboan mendeetan zehar euskal hedadura bat hartua duena ere jar, bera ere onhartuaz, baina forma bakar bat: *Mondragoe, Arrasate-ren* alboan eta ez *Mondrá, Mondrago, Mondragoi* eta *Mondragoe*, guzti hauiek erabiltzen bait dira.

Herritarren, gentilizioaren, izenean tokiko lekukotasunari begiratu diogu gehien bat, urrungoak ez baitu jakiten *ar, tar, dar* ongi bereizten. Baina nola joka aspaldian euskara galdu duten herri eta herrixketan? Oraindik Nafarroa erdaldunduan ez gara sartu, baina bai Araban, eta gure bidea hauxe izan da: Arabako euskalkia Mendebaleko euskara zenetik eta denetik oraindik gordetzen den tokietan: Oleta, Legutiano, Elosu, Otxandio, Ubidea..., eskualde horretan edo Bizkaian erabiltzen diren formen analogiaz jokatu. Nafarroan ere, kasu horretara heltzen garenean berdin egin beharko dugu.

Adibideak nola jarri genituen jakiteko batzordeko eta lankideen artean lehendabiziko lanak eta zerrendak onhartzeko garaia iritxi zenean bidali genuen gutuna agertzea izango da hoberena:

"Euskaltzain edo lankide hori:

Orri honekin hatera, *Herri eta herritarren izendegiaren Batzordeak* proposatzen dituen izenak dihoazkizu. Zure iritzia jaso nahi dugu. Eskutara iezaiguzu lehenbaitlehen, otoi. Hilabeteko epea duzu. Kontua izan oharrak (enmiendarik) gabe-koak onhartuta bezala geldituko direla.

Ez dira zerrenda honetan euskal herri eta herrixka guztiak. Lanaren onetan, eskualdeka ibiliko gara oraingoan legez aurrerantzean ere. Arantzazuko igazko biltzarretan erabaki bezala ordena honetan lan egingo dugu: Arabako eskualdeak lehendabizi, Bizkaikoak bigarren, Gipuzkoakoak hirugarren, Nafarroakoak laugarren, eta ondoren Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoakoak. Herri izen bakoitzak zenbaki bat eramango du aurretik: A, B, G, N, NB, L, edo Z jarriaz, herrialdearen ezaugarri bezala (geroago zenbaki sistema era-bakiko zen).

Ez dira huskeriak lan honetan sortzen diren koskak eta zalantzak. Izen bat zerrendarako hautatzean, maiz ez dakigu zeri lot, herabe dugu benetan. Gehienetan, jakina, irizpide orokoren kontua, hain zuzen. Arazoak berdintsu bait dira han eta hemen, Euskal Herri zabalean. Gure Herria bakarra izanik eta orobat euskara, euskalkien berezitasunak kontutan ditugularik (bitxikeriak eta txokokeriak oro alde batetara utzita, hori bai), ez ahal dugu batera edo bateratsu bederen joka behar?

Hona non, bada, zenbait galdera. Poztuko ginateke zure iritzia jakiteaz:

1a. Zer egin honelako kasuetan?:

APERGI ala APERRIGI?; IBORRI ala IBARRURI?; IDIAZAL ala IDIAZABAL?; ARBAZU ala ARRUGAZU?

1b. ALBEIZ ala ALBENIZ?; LEMONA ala LEMOA?; ZESTUA, ZESTOA ala ZESTONA?; MIÑAU, MIÑAO ala MIÑANO?; GALDAKA, GALDAKO, GALDAKAO ala GALDAKANO?; LAZKAO, LAZKAU ala LAZKANO?; DORRAO, DORRAU ala TORRANO?

1d. LUNO ala LUMO?; MAGUNA ala MAUMA?

1e. ELUETE ala ELUATE?

2.—ARRASATE/MONDRA GOE, MONDRAGOI, MONDRA GO, MONDRA; LEGUTIANO/BILLERLE, VILLARREAL; GAMINIZ/PLACENCIA, PLENTZIA, PLENTZI; LIZARRA, LIZARRARA/ESTELLA; eta kasuetan zer antzeko egin? Aintzina nako leku-izen bat bada, eta "carta puebla"ren erdal izena gailendu bada, euskal itxura hartuta edo hartu gabe?

3.—*H*-ak non sartu behar dira? Zenbateraino?

4.—*N* eta *Ll* bai? Baiezkoan, non eta zenbateraino?

5.—*e* epentetikaren kasuan, zer egin? Adibidez: AURITZ ala AURITZE; USTARITZ ala USTARITZE; GERRIKAITZ ala GERRIKAITZE?

6.—Zer egin euskal izenik izan ez duten herriekin? Adib: PEDERNALES ala SUKARRIETA ala SAMIKOLA?; VILLA NUEVA (de Valdegobia) ala (H)Uribarri-Gobia?; MONTEAGUDO ala MENDIZORROTZA? Ala biak jarri, baina neologismoari alboan izartxo bat jarri argi adierazteko eta geroak esan beza?

Aldez aurretik, mila esker eta ekin eta jarrai, Euskaltzainburuaren eta batzordearen izenean, J. L. Lizundia, batzordeko idazkaria eta E. Knörr, idazkari-laguna".

Puntu honekin bukatzeko, lan prozedura eta adibideetan, erregela orokorrak erabili dira ahal den kasu guztietan. Euskara eta Euskal Herria bat da; eta herrialdeen edo eskualdeen berezitasunak kontutan harturik, berek arbuiatzea ez baita inondik nora gure gogoa, eta bai aipatu ditugun oharretan *n* galtzearen orokortasuna; bai "carta puebla" direlakoeña, eta baita ere hasi Enkartazioetatik eta Bardeetaraino egun euskara galdua den eremu handietan beti orokortasun horri eutsi.

Beste xehetasun batzu

Ez da hau, bada, zirudien bezain lan erraza. Gainera anitz dira herri, herrixka edo hauzategi nagusien izenak, 2.000tik gora. Hobe genuen lanari zatika lotu. Aurrerantzean, hori ere esan behar, bizkortuko dugu abiada.

Badakigu ez dela gure lana pundu denetan euskaldun guztien gogokoa gertatuko. Baino erabat bat ez etortze horrek ezin gaitezke inora ere geldieraz. Zain dugu jendea, ate joka ditugu pertsona eta erakundeak. Gainera, zuzenketa egiteko arrazoina bagenekusa, prest gaude aldatzeko behar ahina izen.

Beste gauzatxo bat: "izenak" dira gure lan honen gaia. Askotan "izana" ere aldatzeko tentaldia izan dugu, Administralgo arroztu batek "entidade" direlakoetan zentzugabekeeria handia eginak baitititu: elkarri lotuak ziren herrixkak berezi egin dituzte eta, alderantziz: inoiz ere elkarturik egon ez direnak "entidade" bakar batetan sartu. Egiteko hori axola handikoa izanik, ez dirudi Batzorde honena denik. Utz dezagun, hortaz, gure Herriari zor zaion Aginteak egin dezala.

Batzorde burua, Mitxelena jaunagandik aparte, lehen zerrenda bietan fitxagile edo lankide jaun hauk izan dira: Araban, Hendrike Knörr, Manu Rz. Urrestarazu eta Federiko Barrenengoa (hau Aiarako eskualdean); Jose Luis Lizundia, Durangaldean eta Artibai ibarrean, eta Alfonso Irigoien, Lea ibarreko herrietan; A. Luis Villasante eta Juan San Martin, Debarroko goi eta behealdeko eskualde bietan; Jose Mari Satrustegi, Aingeru Irigarai eta A. Damaso Intza, Nafarroako eskualdeetan. Kontseilari edo laguntzaile gisa ere izan ditugu zenbait lagun, beren tokiko laguntza estimagarri eta ixilari esker burutu ahal izan ditugu lehen epe bietako lanak. Beren izenak fitxetan arkitzen dira.

Eta pasa gaitezen, gaur zuon aurrera dakarzkigun bi zerrendak aipatzera...

Lehen eta bigarren zerrendak

Hemen dakarzkigun bi zerrendok, Hego Euskal Herriko hamar eskualdenak dira. Iparraldeko fitxak banaturik daude, eta beren autonomiaz lanean dihardue. Gainera han Dassance euskaltzain zenduaren lan estimagarria egina dute.

Lan guztia plangintza baten barnean dago. Eritzi desberdin batzu erabili ondoren, 1976ko Irailaren 24ko bileran batzordea erabaki batetara iritxi zen, numerazio dezimal delako

sistema onhartzea bai fitxagintzarako eta gero "nomenclator" edo Izendegirako. Herrialde bakoitzak zenbaki bat era-mango zuen: Araba: 1; Bizkaia: 2; Gipuzkoa: 3; Nafarroa Garaia: 4 eta 5, zeren kontutan ukantzen genuen gure erresumaren handitasuna eta bertan zirela ia herrixkarik erdiak, 4.ak Mendebale merinalde biak hartuaz, hots, Mendialde-Iruineko eta Lizarrakoa eta 5.ak Ekaldeko hirurak, Zango-tza, Olite eta Tuterakoak; Nafarroa Behereak, 6. Merinalde deituak: 6; Zuberoak: 7 eta Lapurdik: 8. 9 garren zenbakia, gaur Euskal Herritik kanpo diren inguruko eskualdeetako herri edo herrixka batzuren izenek eramango dute, batzuk diogu eta ez denek, askotan ez bait dira ugariak izango. Bertan sartuko dira baita ere urruneko zenbait hiri ere, gurekin harremanak izateagatik euskal bersiozko izena izan dutenak.

Bigarren zenbakia eskualdearena izango da; zerrenda onhartzeko ordena berberean. Eskualdearen izena, historikoak, egun Diputazioak erabiltzen duena, geografikoa edo haran mordo bat hartzen duenean lehendabiziko batena. Ere-mua ere antzerako arrazoiekin pentsatu da eta ez du esan nahi inongo ofizialtasun edo finkatze bat dutenik, kasu askotan behintzat, bai izen eta eremu horik. Herrialdeak nolabait banatu behar ziren eta horretarako saio bat da.

Hirugarren zenbakia, udalarena, munizipioaren izena da, eta Euskal Herrian askotan gertatzen den bezala izen kolektibu bat da eta ez herri batena. Laugarrena, herri, herrixka edo ofizialki "Entidad de población" maila duten hauzategiena da.

Adibide praktiku bat jartzeko 1.1.2.17 Araba (1) herrialdeko, Gorbeialde eskualdeko (1), Zigoitia haran-udaleko (valle-municipio) (1), Zaitegi herrixkarena (17) da.

Bederatzi zerrendetan banatzea pentsatu dugu eta asmoak ondo ateratzen badira honela joango dira:

1.1. Gorbeialdea, 2.1. Durangaldea, 3.1. Leintz, 4.1. Sakana, 5.1. Erro-Aezkoa.

1.2. Aiara, 2.2. Lea-Artibai, 3.2. Deba-Behealdea, 4.2. Larraun, 5.2. Erronkari-Zaraitzu. (Zerrenda biok onhartuak).

1.3. Mendebaleko Lautada, 2.3. Busturia, 3.3. Urola, 4.3. Baztan-Bidasoa, 5.3. Elortz-Esteribar.

1.4. Ekaldeko Lautada, 2.4. Arratia, 3.4. Goiherri, 4.4. Ultzama, 5.4. Longida.

1.5. Ega Garaia, 2.5. Uribe-Butroe, 3.5. Tolosaldea, 4.5. Iruinerria, 5.5. Aibar.

1.6. Arabako Errioxa, 2.6. Uribe-Txoriherri-Bilbo, 3.6. Donostialdea, 4.6. Iltzarbe-Gezalaz, 5.6. Orba-Herriburri.

1.7. Gobia-Osingain, 2.7. Hego-Uribe 3.7. Oiartzualdea, 4.7. Deiherri-Amezkoa. 5.7. Arga Beherea.

1.8. Trebiño-Uda, 2.8. Enkartazioak (Somorrostro) 4.8. Berrotza-Biana, 5.8. Aragoibar.

2.9. Enkartazioak II 4.9. Iguzkitza-Ega Beherea, 5.9. Tuteria-Erribera.

Ipar Euskal Herrian era berean: 6.1. Garazi, 7.1. Basaburia-Ibar esküin, 8.1. Lapurdi Mendebala (Hazparne).

6.2. Baigorri, 7.2. Basaburia-Ibar exker, 8.2. Lapurdi Garaia (Ezpeleta).

6.3. Arbeloa, 7.3. Arballa Handia, 8.3. Erlapurdi (Uztaritze).

6.4. Ostibarre, 7.4. Arballa Txipia, 8.4. Lapurdi Itsasegia (Donibane).

6.5. Amikuze, 7.5. Pettara, 8.5. Lapurdi Beherea (B. A. B. ingurua).

6.6. Bidaxune, 8.6. Seiñanze.

Euskal Herriaren albo eskualdeetakoak edo urruneko batzu: 9.1. Enkartazioen albokoak: Samano, Mena...; 9.2. Arabaren albokoak: Losa, Miranda...; 9.3. Bureba eta Okamendiakoak; 9.4. Errioxakoak; 9.5. Zaragozako probintziako orain direnak: Deustua, Onsellabar...; 9.6. Orain Huescako probintziako direnak: Jaketaria...; 9.7. Biarnokoak; 9.8. Beste Kaskoin eskualdeetakoak; 9.9. Euskal Herritik urrun, baina harremanekatik euskal izena ere dutenak: Bordele, Sanandere, Sibilia...

Azken oharra eta dei bat

Gure aldizkari, irrati eta beste komunikabideetan, borondaterik hoherenaz, maiz ikusten ditugu euskal herri edo herrixken izenak, batzutan era batetara eta besteetan bestetara. Banketxeen bulego zerrendetan, merkatal publizitate iragarkietan eta abarretan, gauza bera gertatzen da.

Horientzat, batez ere, egin dugu Izendegi hau, eta baita ere bereziki ikastola eta alfabetatze-euskalduntze ingurueta-ko testuginen diharduen irakasle eta argitaldariantzat. Batzuok eta besteok, komunikabide eta irakaskintzaren bidez lagunduko bai diaguzue euskal herri izendegi jator eta bateratu bat egiten eta zabaltzen.

Hirugarren sail batek ere behar luke Izendegi honetaz harta izatea, Herri Administralgoak hain zuzen. Gure Udal eta Diputazioek ba dute hemen lanik! Catalunyan herri ize-nak jator eta katalan ortografiaz jartzen hasiak dira aspalditxodanik horretarako Udalbatzarrak bere erabakiak zehatz hartuz, lege prozedura betez eta Institut d'Estudis Catalans-i bere eritzi edo diktamen delakoa beti eskatuz. Euskaltzaindiaren Batzorde hau ere, antzerako lana egiteko prest dago eskatzen zaion guztian, egia esateko hasia da horretan. Batzutan diktamen finkatua eman ahal izango du, beste batzutan oraindik probisionala, baina ahal denik eta oinharrituena beti ere.

Hiru mundu horiei eskaintzen badiegu Izendegi hau, azken batez euskal gizarte osoarentzat da, euskararen ofizial-kidetasuna hiru ardatz horietan, hots, komunikabide, irakaskintza eta Administralgoan oinharritzen, sendotzen eta zindotzen baita. Eta eskualdez eskualde askoren premia izango dugulako, euskaldun orori egiten diogu izendegigintza hone-tarako laguntza deia.

J. L. Lizundia & Hendrike Knörr

HERRI IZENDEGIA

LEHEN ZERRENDA

	IZEN OFIZIALA	EUSKAL IZENA	HERRITARRENA
1.	ALAVA	ARABA	arabar
1.1.	ESTRIBACIONES DEL GORBEA	GORBEIALDEA	
1.1.1.	ZUYA	ZUIA	zuiar
1.1.1.1.	Altube	Altube	altubetar
1.1.1.2.	Amézaga	Ametzaga	ametzagar
1.1.1.3.	Apérregui	Aperregi	aperregiar
1.1.1.4.	Aréchaga	Aretxaga	aretxagar
1.1.1.5.	Ciórraga	Ziorraga	ziorragar
1.1.1.6.	Domaiquia	Domaikia	domaipiar
1.1.1.7.	Guillerna	Gilierna	giliernar
1.1.1.8.	Jugo	Jugo	jugotar
1.1.1.9.	Luquiano	Lukiao	lukiar
1.1.1.10.	Marquina	Markina	markinar
1.1.1.11.	Murguía (cap.) (1)	Murgia (u.b.) (1)	murgiar
1.1.1.12.	Sarria	Sarria	sariar
1.1.1.13.	Vitoriano	Bitoriano	bitorianar
1.1.1.14.	Zárate	Zarate	zaratear
1.1.2.	CIGOITIA	ZIGOITIA	zigoitiar
1.1.2.1.	Acosta	Akozta	akoztar
1.1.2.2.	Apodaca	Apodaka	apodakar
1.1.2.3.	Berrícano	Berrikao	berrikar
1.1.2.4.	Buruaga	Buruaga	buruagar
1.1.2.5.	Cestafe	Zestafe	zestafear
1.1.2.6.	Echagüen	Etxaguen	etxaguendar
1.1.2.7.	Echavarri-Viña	Etxabarri-Dibina	etxabarritar
1.1.2.8.	Eribe	Eribe	eribetar
1.1.2.9.	Gopegui (cap.)	Gopegi (u.b.)	gopegiar
1.1.2.10.	Larrinoa	Larrinoa	larrinoar
1.1.2.11.	Letona	Letona	letonar
1.1.2.12.	Manurga	Maurga	maurgar
1.1.2.13.	Mendarózqueta	Mendarozketa	mendarozketar
1.1.2.14.	Murua	Murua	muruar

(1) Capitalidad del municipio

(1) Udal burua

1.1.2.15.	Olano	Olano	olanoar
1.1.2.16.	Ondátegui	Ondategi	ondategiar
1.1.2.17.	Záitegui	Zaitegi	zaitegiar
1.1.3.	URCABUSTAIZ	URKABUSTAIZ	urkabustaiztar
1.1.3.1.	Abecia	Abezia	abeziar
1.1.3.2.	Abornícano	Abornikano	abornikanar
1.1.3.3.	Apregindana	Apregindana	apregindanar
1.1.3.4.	Belunza	Beluntza	beluntzar
1.1.3.5.	Gujuli	Goiuri	goiuriar
1.1.3.6.	Inoso	Inoso	inosoar
1.1.3.7.	Izarra (cap.)	Izarra (u.b.)	izartar
1.1.3.8.	Larrazcueta	Larrazketa	larrazketar
1.1.3.9.	Ondona	Ondona	ondonar
1.1.3.10.	Oyardo	Oiardo	oiardar
1.1.3.11.	Unzá	Untzaga	untzar
1.1.3.12.	Uzquiano	Uzkiano	uzkianar
1.1.4.	VILLARREAL DE ALAVA	LEGUTIANO, BILLERLE	legutianar billerle.
1.1.4.1.	Elosu	Elosu	elosuar
1.1.4.2.	Gójain	Goiain	goiaindar
1.1.4.3.	Nafarrate	Nafarrate	nafarratear
1.1.4.4.	Ollerías	Oileriak	oileriar
1.1.4.5.	Urbina	Urbina	urbinar
1.1.4.6.	Urrúnaga	Urrunaga	urrunagar
1.1.5.	ARAMAYONA	ARAMAIO	aramaiar
1.1.5.1.	Arejola	Arexola	arexolar
1.1.5.2.	Azcoaga	Azkoaga	azkoagar
1.1.5.3.	Barajuen	Barajuén	barajuendar
1.1.5.4.	Echagüen	Etxagüen	etxaguendar
1.1.5.5.	Gánzaga	Gantzaga	gantzagar
1.1.5.6.	Ibarra (cap.)	Ibarra (u.b.)	ibarratar
1.1.5.7.	Olaeta	Oleta	oletar
1.1.5.8.	Uncella	Untzilla	untzillar
1.1.5.9.	Uríbarri	Uribarri	uribarritar

2.	VIZCAYA	BIZKAIA	bizkaitar
2.1.	DURANGUESADO	DURANGALDEA	
2.1.1.	ABADIANO	ABADIÑO	abadiñar
2.1.1.1.	Abadiano-	Abadiño-	abadiño-
	Celayeta (cap.)	Zelaieta (u.b.)	zelaietar
2.1.1.2.	Amatiermin	Amaitermin	amaitermindar
2.1.1.3.	Gastelua	Gaztelua-a	gazteluar
2.1.1.4.	Guerediaga	Gerediaga	geredidiagar
2.1.1.5.	Matiena	Matiena	matienar
2.1.1.6.	Mendiola	Mendiola	mendiolar
2.1.1.7.	Muncharaz	Muntsaratz	muntsaraztar
2.1.1.8.	Urquiola	Urkiola	urkiolar
2.1.2.	BERRIZ	BERRIZ	berriztar
2.1.2.1.	Andicona	Andikoa	andikoar
2.1.2.2.	Bérriz-	Berriz-	elizondar
	Elizondo (cap.)	Elizondo (u.b.)	
2.1.2.3.	Eitua	Eitua -a	eituar
2.1.2.4.	Mурgoitio	Mурgoitio	mурgoitiar
2.1.2.5.	Ocango	Okango	okangar
2.1.2.6.	Olacueta	Olakuetra	olakuetar
2.1.2.7.	San Lorenzo	San Lorentzo	sanlorentzar
2.1.2.8.	Sarria	Sarria -a	sarriar
2.1.3.	DURANGO	DURANGO	durangar
2.1.3.1.	Orobio	Oromiño	oromiñar
2.1.3.2.	Orózqueta	Orozketa	orozketar
2.1.3.3.	La Pilastra	Arriandi	arrianditar
2.1.3.4.	Yurreta	Iurretta	iurretar
2.1.3.5.	Goyuria	Goiuria -a	goiuriar
2.1.4.	ELORRIO	ELORRIO	elorriar
2.1.4.1.	Berrio-Aldape	Berrio-Aldape	berriar, aldapear
2.1.4.2.	Berriozábal- Arabios	Berriozabal- Aramiño	berriozabaldar, aramiñar

2.1.4.3.	Gáceta	Gazeta	gazetar
2.1.4.4.	Gasteas	Gaztaineta	gaztainetar
2.1.4.5.	Iguria	Iguria	iguriar
2.1.4.6.	Leitz-Miota	Leitz-Miñota	leiztar, miñotar
2.1.4.7.	Lequericas	Lekeriketa	lekeriketar
2.1.4.8.	Mendraca	Mendraka	mendrakar
2.1.4.9.	San Agustín	San Agustin	sanagustindar
2.1.5.	ERMUA	ERMUA -a	ermuar
2.1.6.	GARAY	GARAI	garaitar
2.1.6.1.	Garay-San Miguel (capitalidad)	Garai-San Migel (udal burua)	samigeldar
2.1.6.2.	San Juan	San Juan	sanjuandar
2.1.6.3.	Santa Catalina	Santa Kataliñe (Goiherri)	goiherriar
2.1.7.	IZURZA	IZURTZA	izurtzar
2.1.8.	MALLAVIA	MALLABIA -a	mallabitar
2.1.8.1.	Areitio	Areitio	areitiar
2.1.8.2.	Goitana	Goitaa	goitaar
2.1.8.3.	Guerena	Gerea	gerear
2.1.8.4.	Osma	Osma	osmar
2.1.8.5.	Verano	Berano	beranar
2.1.9.	MAÑARIA	MAÑARIA -a	mañariar
2.1.10.	OCHANDIANO	OTXANDIO	otxandiar
2.1.10.1.	Anteparaluceta	Andaparaluzeta	andaparaluzetar
2.1.10.2.	Mekoleta	Mekoleta	mekoletar
2.1.11.	VALLE DE ACHONDO	ATXONDO	atxondar
2.1.11.1.	Apatamonasterio	HARANA	
2.1.11.2.	Arrázola	Apatamonasterio	apatar
		Arrazola	arrazolar

2.1.11.3.	Axpe	Axpe	axpetar
2.1.11.4.	Marzana	Martzaa	martzaar
2.1.11.5.	Santiago	Santiago	santiagar
2.1.12.	ZALDIBAR	ZALDIBAR	zaldibartar
2.1.12.1.	Eizaga	Eitzaga	eitzagar
2.1.12.2.	Gázaga	Gazaga	gazagar
2.1.12.3.	Goyerri	Goiherri	goiherriar
2.1.13.	AMOREBIETA-ECHAN	ZORNOTZA	zornotzar
2.1.13.1.	Aldanas	Aldana	aldanar
2.1.13.2.	Amorebieta (cap.)	Zornotza (u.b.)	zornotzar
2.1.13.3.	Astepe	Astepe	astepear
2.1.13.4.	Autzagana	Autzagana	autzagandar
2.1.13.5.	Bernagoitia	Bernagoitia -a	bernagoitiar
2.1.13.6.	Boroa	Boroa	boroor
2.1.13.7.	Echano	Etxano	etxanar
2.1.13.8.	Euba	Euba	eubar
2.1.13.9.	Orobios	Oromiño	oromiñar
2.1.13.10.	San Miguel	Sa Migel	samigeldar

* * *

3.	GUIPUZCOA	GIPUZKOA	giputz, gipuzkoar
3.1.	CUENCA DEL DEVA DEBARROA		
3.1.bis	LENIZ	LEINTZ	leintzar
3.1.1.	SALINAS DE LENIZ	LEINTZ-GATZAGA	gatzagar
3.1.2.	ESCORIAZA	ESKORIATZA	eskoriatzar
3.1.2.1.	Apózaga	Apotzaga	apotzagar
3.1.2.2.	Bolívar	Bolibar	bolibartar

3.1.2.3.	Guellano	Gellao	gellaoar
3.1.2.4.	Marín	Marin	marindar
3.1.2.5.	Mázmela	Mazmela	mazmelar
3.1.2.6.	Mendiola	Mendiola	mendiolar
3.1.2.7.	Zarimuz	Zarimutz	zarimuztar
3.1.3.	ARECHAVALETA	ARETXABAleta	aretxabaletar
3.1.3.1.	Aozaraza	Aozaratzar	aozaratzar
3.1.3.2.	Arcarazo	Arkarazo	arkarazar
3.1.3.3.	Arenaza	Areantza	areantzar
3.1.3.4.	Echevarri	Sailunete	
3.1.3.5.	Galarza	Galartza	galartzar
3.1.3.6.	Goronaeta	Goroeta	goroetar
3.1.3.7.	Izurieta	Izurieta	izurieta
3.1.3.8.	Larrino	Larrino	larrinotar
3.1.3.9.	Oro	Oro	orotar
3.1.4.	MONDRAGON	ARRASATE/ MONDRAGOE	arrasatear, mondragoar
3.1.4.1.	Garagarza	Garagartza	garagartzar
3.1.4.2.	Bedoña	Bedoña	bedoñar
3.1.4.3.	Santa Agueda	Gesalibar	gesalibartar
3.1.4.4.	Udala	Udala	udalar
3.1.4.5.	Uríbarri	Uribarri	uribarritar
3.1.4.6.	Veneras	Mehatz- erreka	
3.1.5.	OÑATE	OINATI	oinatiar
3.1.5.1.	Aránzazu	Arantzazu	arantzazuar
3.1.5.2.	Araoz	Araotz	araoztar
3.1.5.3.	Berezano	Berezao	berezar
3.1.5.4.	Garagalza	Garagaltza	garagaltzar
3.1.5.5.	Garibay	Garibai	garibaitar
3.1.5.6.	Lecesarri	Lezesarri	lezesarriar
3.1.5.7.	Murguía	Murgia -a	murgitar
3.1.5.8.	Narria	Larraina	larrainar
3.1.5.9.	Olabarrieta	Olabarrieta	olabarrieta
3.1.5.10.	Sancholopeztegui	Santxolopeztegi	
3.1.5.11.	Torreauso	Torrehauzo	sanpedrotar

3.1.5.12.	Uríbarri	Uribarri	uribarritar
3.1.5.13	Urréjola	Urrexola	urrexolar
3.1.5.14	Zañartu	Zañartu	zañartuar
3.1.5.15	Zubillaga	Zubillaga	zubillagar

* * *

4.5. eta 6, NAVARRA

NAFARROA

nafar

4.1.	LA BARRANCA	SAKANA	sakandar
4.1.1.	ARAQUIL	ARAKIL	arakildar
4.1.1.1.	Aizcorbe	Aizkorbe	aizkorbear
4.1.1.2.	Egay	Ekai	ekaitar
4.1.1.3.	Echarren	Etxarren	etxarrendar
4.1.1.4.	Echeverri	Etxeberri	etxeberritar
4.1.1.5.	Eguitarreta	Egiarreta	egiarretar
4.1.1.6.	Erroz	Errotz	erroztar
4.1.1.7.	Irurzun	Irurtzun	irurtzundar
4.1.1.8.	Izurdiaga	Izurdiaga	izurdiagar
4.1.1.9.	Murguindueta	Murgieta	murgietar
4.1.1.10.	Santiago- (cap.) Ichasperri	Itxasperri (u.b.)	
4.1.1.11.	Satrústegui	Satrustegi	satrustegiar
4.1.1.12.	Urrízola	Urrizola	urrizolar
4.1.1.13.	Villanueva	Ireberri	ireberritar
4.1.1.14.	Yábar	Iabar	iabartar
4.1.1.15.	Zuazu	Zuhatzu	zuhatzuar

4.1.2.	ERGOYENA	HERGOIENA	hergondar, hergoiendar
4.1.2.1.	Lizárraga	Lizarraga	lizarragatar
4.1.2.2.	Torrano	Dorrao	dorraoar
4.1.2.3.	Unanua	Unanua	unanuar
4.1.3.	IRAÑETA	IRAÑETA	irañetar
4.1.4.	HUARTE- ARAQUIL	UHARTE- ARAKIL	uhartear

4.1.4.1.	Amurguin	Amurgin	amurgindar
4.1.4.2.	San Miguel Excelsis	San Migel	samigeldar
4.1.4.3.	Zamarce	Zamartze	zamartzear
4.1.5.	ARRUAZU	ARRUAZU	arruazuar
4.1.6.	LACUNZA	LAKUNTZA	lakuntzar
4.1.7.	ARBIZU	ARBIZU	arbizuar
4.1.8.	ECHARRI- ARANAZ	ETXARRI- ARANATZ	etxarriar
4.1.8.1.	Lizarragabengoa	Lizarragabengoa -a	lizarragabengotar
4.1. bis	Valle de BURUNDA	BURUNDA	burundar
4.1.9.	BACAICOA	BAKAIKU	bakaikuar
4.1.10.	ITURMENDI	ITURMENDI	iturmendiar
4.1.11.	URDIAIN	URDIAIN	urdiaindar
4.1.12.	ALSASUA	ALTSASU	altsasuar
4.1.12.1.	Ameztia	Ameztia	ameztiar
4.1.12.2.	Ibarrea	Ibarrea	ibarrear
4.1.12.3.	Sorozarreta	Sorozarreta	sorozarretar
4.1.13.	OLAZAGUTIA	OLAZTI	olaztiar
4.1.14.	CIORDIA	ZIORDI	ziordiar

5.1.	ERRO-AEZCOA	ERRO-AEZKOA	
5.1. bis	Valle de AEZCOA	AEZKOA	aetza
5.1.1.	ABAURREA ALTA	ABAURREGAINA	abaurtar
5.1.2.	ABAURREA BAJA	ABAURREPEKO	abaurtar
5.1.3.	ARIA	ARIA	ariatar
5.1.3.1.	Navala	Nabala	
5.1.4.	ARIVE	ARIIBE	aribetar
5.1.5.	GARAYOA	GARAIOA	garaioar
5.1.6.	GARRALDA	GARRALDA	garraldar
5.1.7.	ORBAICETA	ORBAIZETA	orbaiztar
5.1.7.1.	Fábrica de Orbaiceta	—	—
5.1.7.2.	Larráun	Larraun	larraundar
5.1.7.3.	Pantano de Irabia	Irabia	—
5.1.8.	ORBARA	ORBARA	orbartar
5.1.9.	VILLANUEVA DE AEZCOA	IRIBERRI	iribertar
5.1.10.	BURGUETE	AURITZ	auriztar
5.1.10.1.	Arrobi	Arrobi	
5.1.11.	Valle de ERRO	ERROIBAR	erroibartar
5.1.11.1.	Aincioa	Aintzioa	aintzioar
5.1.11.2.	Ardaiz	Ardaitz	ardaiztar

5.1.11.3.	Larraingoa	Larraingoa	Larraingoar
5.1.11.4.	Urniza	Urniza	urnizar
5.1.11.5.	Cilveti	Zilbeti	zilbetiar
5.1.11.6.	Olaverri	Olaberri	olaberritar
5.1.11.7.	Quinto-Real	Kintoa	kintoar
5.1.11.8.	Erro	Erro	errotar
5.1.11.9.	Esnoz	Esnotz	esnoztar
5.1.11.10.	Espinal- Auzperri	Auzperri	auzperriar
5.1.11.11.	Linzoinain	Lintzoain	lintzoaindar
5.1.11.12.	Casa del Valle o Laurenchi (cap.)	Laurentzi (u.b.)	—
5.1.11.13.	Loizu	Loizu	loizuar
5.1.11.14	Mezquíriz	Mezkiritz	mezkiriztar
5.1.11.15.	Ureta	Ureta	uretar
5.1.11.16.	Olóndriz	Olondriz	olondriztar
5.1.11.17.	Gurbízar	Gurbizar	gurbizartar
5.1.11.18.	Viscarret- Guerendiaín	gerendiaín	gereadiaindar
5.1.11.19.	Serogain- Lastur	Serogain- Lastur	serogaindar, lasturtar
5.1.12.	VALCARLOS	LUZAIDE	luzaidar
5.1.12.1.	Gañecoleta	Gainekoleta	gainekoletar
5.1.12.2.	Gaindola	Gaindola	gaindolar
5.1.12.3.	Azoleta	Azoleta	azoletar
5.1.12.4.	Guardiano	Guardiano	—
5.1.12.5.	Pecocheta	Pekotxeta	peketxetar
5.1.13.	RONCESVALLES	ORREAGA	orreagatar

* * *

BIGARREN ZERRENDA

1.2.	Tierra de AYALA	AIARA	aiarar
1.2.1.	AMURRIO	AMURRIO	amurriar

1.2.1.1.	Abiaga	Abiaga	abiagar
1.2.1.2.	Lacalle	Kalea	kaletar
1.2.1.3.	Landako (cap.)	Landako (u.b.)	landakar
1.2.1.4.	Onsoño	Onzoño	onzoñar
1.2.1.5.	Ugarte	Ugarte	ugartear
1.2.1.6.	Zamora	Zamora	zamorar

1.2.2.1.	ARCINIEGA	ARTZINIEGA	artziniegar
1.2.2.2.	Campijo	—	—
1.2.2.3.	Gordeliz	Gordeliz	gordeliztar
1.2.2.4.	Mendieta	Mendieta	mendietar
1.2.2.5.	Retes de Tudela	Erreta-Tutera	erretar
1.2.2.6.	Santa Coloma	Santa Koloma	santakolomar
1.2.2.7.	Sojoguti	Zolloguti	zollogutiar

1.2.3.	ARRASTARIA	HARRASTARIA	harrastariar
1.2.3.1.	Aloria	Aloria	aloriar
1.2.3.2.	Artómaña	Artomaña	artomañar
1.2.3.3.	Délica (cap.)	Delika (u.b.)	delikar
1.2.3.4.	Tertanga	Tertanga	tertangar

1.2.4.	AYALA	AIARA	aiarar
1.2.4.1.	Aguñiga	Aginaga	aginagar
1.2.4.2.	Añes	Añes	añestar
1.2.4.3.	Beótegui	Beotegi	beotegiar
1.2.4.4.	Costera	Opellora	opellorar
1.2.4.5.	Echegoyen	Etxegoien	etxegoiendar
1.2.4.6.	Erbi	Erbi	erbitar
1.2.4.7.	Izoria	Izoria	izorian
1.2.4.8.	Lejarzo	Lexartzu	lexartzuar
1.2.4.9.	Lujó	Luxo	luxar
1.2.4.10.	Luyando	Luxaondo	luxaondar
1.2.4.11.	Llanteno	Lanteno	lantenar
1.2.4.12.	Madaria	Madaria	madariar
1.2.4.13.	Maroño	Maroño	maroñar
1.2.4.14.	Menagaray	Menagarai	menagaraitar
1.2.4.15.	Menoyo	Menoio	menoiar
1.2.4.16.	Murga	Murga	murgatar
1.2.4.17.	Oceca	Ozeka	ozekar

1.2.4.18.	Olábezgar	Olabezahar	olabezahartar
1.2.4.19.	Quejana	Kexaa	kexaar
1.2.4.20.	Respaldiza (cap.)	Arespalditza (u.b.)	arespalditzar
1.2.4.21.	Retes de Llanteno	Erreta-Llanteno	erretar
1.2.4.22.	Salmantón	Salbantone	salbantondar
1.2.4.23.	Sojo	Zollo	zollar
1.2.4.24.	Zuaza	Zuhatza	zuhatzar

1.2.5.	LEZAMA	LEZAMA	lezamar
1.2.5.1.	Astóbiza	Astobitza	astobitzar
1.2.5.2.	Barambio	Baranbio	baranbiar
1.2.5.3.	Lecámaña	Lekamaña	lekamañar
1.2.5.4.	Saracho	Saratxo	saratxar
1.2.5.5.	Larrimbe	Larrinbe	larrinbear

1.2.6.	LLODIO	LAUDIO	Laudioar
1.2.6.1.	Goyénuri (cap.) (Laplaza)	Goienuri (u.b.)	goienuriar
1.2.6.2.	Larra (Areta)	Larra (Areta)	larratar (aretar)
1.2.6.3.	Larrazábal-Olarte (Gardea)	Larrazabal-Olarte (Gardea)	larrazabaldar, olartear (gardear)

1.2.7.	OQUENDO	OKONDO	okondar, okondotar
1.2.7.1.	Irabien	Irabien	irabiendar
1.2.7.2.	Jandiola	Jandiola	jandiolar
1.2.7.3.	San Román	Okondogoiena	okondogoiendar
1.2.7.4.	Ugalde	Ugalde	ugaldear
1.2.7.5.	Villachica	Billatxika	billatxikar
1.2.7.6.	Zudiviarte (cap.)	Zudibiarte (u.b.)	zudibiartear

* * *

2.2. (LEA-ARTIBAI arroen eskualdea)

(Comarca de las cuencas de LEA-ARTIBAY)

2.2.1.	ARBACEGUI- GUERRICAIZ	MUNITIBAR	munitibartar
2.2.1.1.	Arbácegui	Arbatzegi	arbatzegiar
2.2.1.2.	Berreño	Berreño	berreñar
2.2.1.3.	Guerrica	Gerrika	gerrikar

2.2.1.4.	Guerricaiz	Gerrikaitz	gerrikaiztar
2.2.1.5.	Munditibar (cap.)	Munitibar (u.b.)	munitibartar
2.2.1.6.	Totorica	Totorika	totorikar
2.2.2.	MURELAGA	AULESTI	aulestiar
2.2.2.1.	Aulestia (cap.)	Aulesti (u.b.)	aulestiar
2.2.2.2.	Ibarrola-Urriola	Ibarrola-Urriola	ibarrolar, urriolar
2.2.2.3.	Narea	Narea	narear
2.2.2.4.	San Antón - Goyerri	San Anton - Goiherri	sanantondar, goiherritar
2.2.2.5.	Zubero - Malax	Zubero - Malats	zuberoar, malastar
2.2.3.	GUIZABURUAGA	GIZABURUAGA	gizaburuagar
2.2.3.1.	Laxier-Ocamica	Laxier-Okamika	laxiertar, okamikar
2.2.4.	AMOROTO	AMOROTO	amorotar
2.2.4.1.	Amoroto-Elejalde (cap.)	Amoroto-Elexalde (u.b.)	elexaltaru
2.2.4.2.	Odiaga	Odiaga	odiagar
2.2.4.3.	Ugarán	Ugaran	ugarandar
2.2.4.4.	Urrutia	Urrutia	urrutiar
2.2.5.	ISPASTER	IPAZTER	ipaztertar
2.2.5.1.	Barainca	Barainka	barainkar
2.2.5.2.	Gurchiaga-Arropain	Kurtxia-Arropain	kurtxiar, arropaindar
2.2.5.3.	Gardata-Articas	Gardata-Artika	gardatar, artikar
2.2.5.4.	Mendazona	Mendazoa	mendazoar
2.2.5.5.	Soloarte-Gallate	Solarte-Gallate	solartetar, galletetar
2.2.5.6.	Soloanes	Soloan	soloandar
2.2.6.	MENDEJA	MENDEXA	mendexar
2.2.6.1.	Celaya (San Pedro) (cap.)	Zelaia (u.b.)	zelaitar
2.2.6.2.	Iturrate	Iturrate	iturratear
2.2.6.3.	Leagui	Leagi	leagitar
2.2.6.4.	Licona	Likoa	likoar

2.2.7.	LEQUEITIO	LEKEITIO	lekeitiar
2.2.8.	CENARRUZA	ZIORTZA	ziortzar
2.2.8.1.	Arta	Arta	artar
2.2.8.2.	Bolívar (cap.)	Bolibar (u.b.)	bolibartar
2.2.8.3.	Céniga-Ceárregui	Zeinka-Zearregi	zeinkar, zearregitar
2.2.8.4.	Goyerría-Cenarruza	Goiherri	goiherritar
2.2.9.	MARQUINA- JEMEIN	MARKINA- XEMEIN	markinar, xemeindar
2.2.9.1.	Amalloa	Amallo	amalloar
2.2.9.2.	Barínaga	Barinaga	barinagar
2.2.9.3.	Ilunzar	Ilunzar	ilunzartar
2.2.9.4.	Iturreta	Iturreta	iturretar
2.2.9.5.	Meabe	Meabe	meabetar
2.2.9.6.	Urberuagade Ubilla	Urberuaga	urberuagar
2.2.10.	ECHEVARRIA	MARKIN- ETXEBAIRRI	etxebarritar
2.2.10.1.	Alzáa	Altzaa	altzaar
2.2.10.2.	Aulesti	Aulesti	aulestiar
2.2.10.3.	Galarza	Galartza	galartzar
2.2.10.4.	San Andrés de Echevarría o La Ribera (cap.)	Erbera (u.b.)	erberar
2.2.10.5.	Unamúnzaga	Unamuntzaga	unamuntzagar
2.2.11.	BERRIATUA	BERRIATU	berriatuar
2.2.11.1.	Asterrica	Asterrika	asterrikar
2.2.11.2.	Magdalena	Madalena	madalenar
2.2.11.3.	Mereludi	Milludi	milluditar
2.2.12.	ONDARROA	ONDARROA	ondarroar, ondarrutar,

3.2. (Debarroaren Behealdea hartzen duen eskualde) (Comarca formada por la zona baja de la Cuenca del Deva).

3.2.1.	ANZUOLA	ANTZUOLA	antzuolar
3.2.2.	VERGARA	BERGARA	bergarar
3.2.2.1.	Anguiozar	Angiozar	angiozartar
3.2.2.2.	Basalgo	Basalgo	basalgar
3.2.2.3.	Elosua	Elosu	elosuar
3.2.2.4.	Los Mártires	Osintxu	osintxuar
3.2.2.5.	San Prudencio	San Prudentzio	sanprudentziar
3.2.2.6.	Ubera	Ubera	uberar

3.2.3.	ELGUETA	ELGETA	elgetar
3.2.3.1.	Aranceta-Ciarra	Arantzeta-zearra	arantzetar
3.2.3.2.	Arriola-erreca	Ariola erreka	—
3.2.3.3.	Egocheaga	Egoetxea	—
3.2.3.4.	Goiemandi	Goimendi	goimendiar
3.2.3.5.	Isusiaga	Isusiaga	isusiagar
3.2.3.6.	Uriartea	Uriarte	uriartear

3.2 bis (Debarroko Markina harana eskualdetxoa) (Subcomarca del valle de Marquina del Deva)

3.2.4.	PLACENCIA DE LAS ARMAS	SORALUZE / PLAENTZIA	plaentziar
--------	-----------------------------------	---------------------------------	------------

3.2.	EIBAR	EIBAR	eibartar
3.2.5.1.	Aguinaga	Aginaga	aginagar
3.2.5.2.	Arrate	Arrate	arratear
3.2.5.3.	Málzaga	Maltzaga	maltzagar

3.2.6.	ELGOIBAR	ELGOIBAR	elgoibartar
3.2.6.1.	Alzola	Altzola	altzolar
3.2.6.2.	Mendaro	Mendaro	mendaroar

3.2.6.3.	San Lorenzo	Sallabente	sallabentear
3.2.6.4.	San Miguel	San Miguel-Aiastia	samigeldar
3.2.6.5.	San Pedro	San Pedro-Idotorbe	sanpedroar
3.2.6.6.	San Roque	San Roke-Azkue	sanrokear
3.2.7.	MOTRICO	MUTRIKU	mutrikuar
3.2.7.1.	Astigárribia	Astigarribia	astigarribiar
3.2.7.2.	Azpilgoeta	Azpilegoeta	azpilgoetar
3.2.7.3.	Saturrarán	Saturrarán	saturrarandar
3.2.8.	DEVA	DEBA	debar
3.2.8.1.	Iciar	Itziar	itziartar
3.2.8.2.	San Nicolás de Lástur	Lastur	lasturtar

* * *

4.2. (LARRAUN, ARAITZ, IMOTZ, BASABURUA, LEIZARAN eta URUMEA GARAIA haranek osatzen duten eskualdea) (Comarca formada por los valles de LARRAUN, ARAIZ, IMOZ, BASABURUA, LEIZARAN y ALTO URUMEA).

4.2.1.	LARRAUN	LARRAUN	larraundar
4.2.1.1.	Albiasu	Albisu	albisuar
4.2.1.2.	Aldaz	Aldatz	aldaztar
4.2.1.3.	Alli	Alli	alliar
4.2.1.4.	Arruiz	Arruitz	arruiztar
4.2.1.5.	Astiz	Astitz	astiztar
4.2.1.6.	Azpiroz	Azpirotz	azpiroztar
4.2.1.7.	Lezaeta	Lezeta	lezetar
4.2.1.8.	Baraibar	Baraibar	baraibartar
4.2.1.9.	Echarri	Etxarri	etxarriar
4.2.1.10.	Errazquín	Errazkin	errazkindar
4.2.1.11.	Señorio de Eraso	Eraso	—
4.2.1.12.	Gorriti	Gorriti	gorritiar
4.2.1.13.	Huici	Uitzi	uitziar
4.2.1.14.	Iribas	Iribas	iribastar
4.2.1.15.	Lecumberri (cap.)	Lekunberri (u.b.)	lekunberriar
4.2.1.16.	Madoz	Madotz	madoztar
4.2.1.17.	Mugiro	Mugiro	mugiroar
4.2.1.18.	Odériz	Oderitz	oderiztar

4.2.2.	ARAIZ	ARAITZ	araiztar
4.2.2.1.	Arriba (cap.)	Arribe (u.b.)	arribear
4.2.3.2.	Atallo	Atallu	atalluar
4.2.2.3.	Azcárate	Azkarate	azkaratear
4.2.2.4.	Gainza	Gaintza	gaintzar
4.2.2.5.	Inza	Intza	intzar
4.2.2.6.	Uba	Uba	ubatar
4.2.2.7.	Uztegui	Uztegi	uztegiar

4.2.3. BETELU BETELU beteluar

4.2.4.	IMOZ	IMOTZ	imoztar
4.2.4.1.	Echalecu (cap.)	Etxaleku (u.b.)	etxalekuar
4.2.4.2.	Eraso	Eraso	erasoar
4.2.4.3.	Goldáraz	Goldaratz	goldaraztar
4.2.4.4.	Latasa	Latasa	latasar
4.2.4.5.	Músquiz	Muzkitz	muzkiztar
4.2.4.6.	Oscoz	Oskotz	oskoztar
4.2.4.7.	Urriza	Urritz	urriztar
4.2.4.8.	Zarranz	Zarrantz	zarranztar

4.2.5.	BASABURUA MAYOR	BASABURUA	basaburuar
4.2.5.1.	Aizároz	Aizarotz	aizarohtar
4.2.5.2.	Arrarás	Arrarats	arrarastar
4.2.5.3.	Beramendi	Beramendi	beramendiar
4.2.5.4.	Beruete	Beruete	beruetear
4.2.5.5.	Erviti	Erbiti	erbitiar
4.2.5.6.	Garzarón	Gartzaron	gartzarondar
4.2.5.7.	Ichaso	Itxaso	itxasoar
4.2.5.8.	Igoa	Igoa	igoar
4.2.5.9.	Jaunsaras (cap.)	Jaunsarats (u.b.)	jaunsarastar
4.2.5.10.	Oroquieta	Orokjeta	orokietar
4.2.5.11.	Udave	Udabe	udabear
4.2.5.12.	Yaben	Iaben	iabendar

4.2.6. ARESO ARESO aresoar

4.2.7.	LEIZA	LEITZA	leitzar
4.2.7.1.	Arquisquil	Arkiskil	arkiskildar
4.2.7.2.	Erasote	Erasote	erasotear
4.2.7.3.	Erre	Erreka	—
4.2.7.4.	Gorriztarán	Gorriztaran	gorriztarandar
4.2.7.5.	Ibero	Ibero	iberoar
4.2.7.6.	Mayeta	Maieta/ Sakulu	maiatar/ sakuluar

4.2.8.	GOIZUETA	GOIZUETA	goizuetar
4.2.8.1.	Aitasanegui	Aitasemegi	aitasemegitaren
4.2.8.2.	Alcanzuriáin	Alkanzuriain	alkanzuriaindar
4.2.8.3.	Alcasoaldea	Alkasoaaldea	alkasoar
4.2.8.4.	Articuza	Artikutza	artikutzar
4.2.8.5.	Espidealdea	Espidealdea	—
4.2.8.6.	Tartazu	Tartazu	tartazuar

4.2.9.	ARANO	ARANO	aranotar
4.2.10.	Latse	Latse	latsetar
4.2.11.	Suro	Suro	—
4.2.12.	Urumea	Urumea	urumear

* * *

5.2. (ERRONKARI eta ZARAITZU haranek osatzen duten eskualdea) (Comarca formada por los valles de Roncal y Salazar).

5.2.	Valle de RONCAL	ERRONKARI	erronkariar
5.2.1.	BURGUI	BURGI	burgiar
5.2.2.	GARDE	GARDE	gardar
5.2.3.	ISABA	IZABA	izabar

5.2.4.	RONCAL	ERRONKARI	erronkariar
5.2.4.1.	El Irati, S. A.	—	—
5.2.5.	URZAINQUI	URZAINKI	urzainkiar
5.2.6.	UZTARROZ	UZTARROZE	uztarroztar
5.2.7.	VIDANGOZ	BIDANKOZE	bidankoztar
5.2. bis	Valle de SALAZAR	ZARAITZU	zaraitzuar
5.2.8.	ESCAROZ	EZKAROTZE	ezkaroztar
5.2.9.	ESPARZA	ESPARTZA	espartzar
5.2.10.	GALLUES	GALLOZE	galloztar
5.2.10.1.	Iciz	Izize	iziztar
5.2.10.2.	Izal	Izalle	izallar
5.2.10.3.	Uscarnés	Uskarze	uskarztar
5.2.11.	GUESA	GORZA	goztar
5.2.11.1.	Igal	Igari	igariar
5.2.11.2.	Ripalda	Erripalda	erripaldar
5.2.12.	IZALZU	ITZALTZU	itzaltzuar
5.2.13.	JAURRIETA	EAURTA	eaurtar
5.2.13.1.	Remendia	Erremendia	—

5.2.14.	OCHAGAVIA	OTSAGI	otsagiar
5.2.14.1.	Idaibea	Idaibea	—
5.2.14.2.	Iratzi	Iratzi	—
5.2.14.3.	Musquilda	Muskilda	—
5.2.15.	ORONZ	ORONTZ	oronztar
5.2.16	SARRIES	SARTZE	sarztar
5.2.16.1.	Ibilcieta	Ibilzieta	ibilziatar